KALTEA LEPOAN DAGIANAK BIZARRA
Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO

Euskadi 2006

Avda. Basagoiti, 20
48992 GETXO (Bizkaia)
Tf: 94 466 02 07
Faxa: 94 466 02 11
pertsonal@getxo.eus
http://www.getxo.eus

Legez emandako eskurantzez baliaturik proposatu da hurrengo Ebazpena onestea.

En virtud de las atribuciones conferidas, se propone la aprobación de la siguiente Resolución.

| **Ebazpena** / Resolución: | **5503 / 2019** | **Erref.** / Ref.: | **M.G.A./i.z.** |
|---|---|---|---|
| **Gaia** / Asunto: | **Modificar el decreto 3042/2018 de 20 de julio, en sus artículos 7 y 8.** | | |
| **Arloa** / Área: | ***LANGILERIA*** / **PERSONAL** | | |
| **Interesduna** / Interesado: | | | |

## AURREKARIAK

1.- Uztailaren 28ko 3042/2018 Dekretuaren bidez, Getxoko udalaren antolamendu-egitura onartu zen, administrazioaren arloko kudeaketako arloen eskumenen mugaketa eta eduki funtzionala antolatu eta argitzearen ondoreetarako.

2.- Legealdi berri bat hasi da eta legegintzaldian zehar indarrean egongo den egiturari buruzko dekretua berritu bitartean, egungo antolamenduan aldaketaren bat egin behar dela igarri da, eskuratutako funtzionamendu-esperientziaren eta gobernu honek udal-eraikinen kudeaketari buruz bultzatu nahi duen ikuspegi berriaren arabera. Horren arabera, "Udal Eraikinak" epigrafeari (gaur egun Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloa - Udal Eraikinak dena; 3042/2018 Dekretuaren 7. artikulua) esleitutako edukien, funtzioen eta erantzukizunen administrazio mailako lekualdaketaren izapidea aktibatzea egokia eta komenigarria dela jakinarazten da, hain zuzen ere "Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa - Ingurumena" deritzonera (aipatu den Dekretuaren 8. artikulua).

3.- Langileria eta Antolaketa Arloaren 2019ko azaroaren 27ko txosten teknikoa aztertu da.

## ANTECEDENTES

1.- Mediante Decreto 3042/2018, de 28 de julio, se aprobó la estructura organizativa del Ayuntamiento de Getxo, con objeto de ordenar y clarificar el deslinde competencial y el contenido funcional de las distintas áreas de gestión administrativa.

2.- Iniciada una nueva legislatura, y en tanto se renueva el decreto de estructura que regirá a lo largo de la misma, se ha detectado la necesidad de introducir alguna modificación sobre la organización actual, conforme a la experiencia de funcionamiento adquirida y el nuevo enfoque de gestión de los edificios municipales que desde este gobierno se quiere impulsar. En su virtud, se informa la oportunidad y conveniencia de activar el trámite administrativo de traslado de contenidos, funciones y responsabilidades asignados al epígrafe “Edificios Municipales” (hoy en el Área Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística - Edificios Municipales; art. 7 del decreto 3042/2018) al Área de “Infraestructuras, Obras y Servicios - Medio Ambiente” (artículo 8 del citado decreto).

3.- Visto el informe técnico del Área de Personal y Organización, de fecha, 27 de noviembre de 2019.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Dekretu hau ematen da Tokiko Autonomiaren Europako Gutunaren 6. artikuluan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 4.1.a. artikuluan eta Euskadiko Toki

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

1.- Se dicta el presente Decreto en el ejercicio de las potestades de autoorganización que se reconoce a los Ayuntamientos en el artículo 6 de la Carta Europea de Autonomía Local, en el



Cod. Validacion: GET/DEK/2019/5503 RM3wjvqcg9

Sinatua: Jesus Maria Lakarra Arrastia (Langile eta Antolaketaren Arloko Arduraduna/Responsable del Área de Personal y Organización)
Firmado: Ignacio Uriarte Gorostiaga (Zinegotzi delegatua. Alkatearen 3214/2019 Dekretu bidez eskuordetua/Concejal/a delegado/a. Delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía nº 321...) Data: 2019/11/29 Fecha: 29/11/2019

Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 2.5 artikuluan udalei aitortzen zaizkien autoantolaketarako ahalak baliatuz eta honakoa.

***EBATZI DUT***

**Lehena.-** Uztailaren 20ko 3042/2018 Dekretuaren 7. eta 8. artikuluak aldatzea, Udal Eraikinei lotutako funtsezko zeregina eta bloke funtzionala Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arlotik (7. artikulua) Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arlora – Ingurumena (8. artikulua) lekualdatuz, hau da:

Funtsezko zeregina:

"Udalaren eraikinen gaineko jarduera, haietan modu integralean esku hartuz, sailek beren zerbitzuak behar bezalako kalitate eta erosotasun estandarrekin garatu ahal izan ditzaten"

Funtzioen zerrenda:

m) Udal eraikinetan esku hartzeko proposamenak egitea.
n) Esleitutako udal-brigadak zuzendu eta kudeatzea, Azpiegituren Arloarekin koordinatuta, ekipo propioen modernizazioa sustatuz, ekonomia-, energia- eta ingurumen-efizientziako irizpideen arabera, eta funtzionamenduaren arloko irizpideak bateratuz udal-ekipamendu berrietan (Aiboa).
o) Eremuen espazio-, banaketa- eta kokapen-beharrak planifikatu eta prestatzea, horien helburuak eta beharrak kontuan hartuta.
p) Gainerako udal-arloetako eta erakunde autonomoetako arduradunei aholku ematea okupatzen dituzten eraikinekin zerikusia duten gaiei buruz, eta haien kontsultei erantzutea.
q) Udal eraikinen eta instalazioen mantentze integrala.
r) Barnealdeen garbiketa planifikatzea, kudeatzea eta kontrolatzea.
s) Getxoko Udalak bere zereginak betetzeko behar dituen lokal, espazio eta/edo eraikin berriak diseinatzea.
t) Udal aretoen eta gelen erosotasun-parametroak diseinatzea eta kontrolatzea.
u) Udal-eraikinen energia-kudeaketako irizpideak diseinatzea eta eraikin horietan energia

artículo 4.1.a. de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local, y en el artículo 2.5 de la Ley 2/2016, de Instituciones Locales de Euskadi.

***RESUELVO***

**Primero.-** Modificar el decreto 3042/2018 de 20 de julio, en sus artículos 7 y 8, en la medida que el cometido esencial y el bloque funcional vinculado a Edificios Municipales se traslada del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística (artículo 7) al Área de Infraestructuras, Obras y Servicios - Medio Ambiente (artículo 8), a saber:

Cometido esencial:

"La actividad sobre los edificios municipales, interviniendo en ellos de forma integral para que las diferentes Áreas puedan desarrollar sus servicios con estándares de calidad y confort debidos"

Relación de funciones:

m) Realizar propuestas de intervención sobre los edificios municipales.
n) Dirección y gestión de las brigadas municipales asignadas, en coordinación con el Área de Infraestructuras, fomentando la modernización de los equipos propios bajo criterios de eficiencia económica, energética y ambiental, y unificando criterios de funcionamiento en los nuevos equipamientos municipales (Aiboa).
o) Planificar y confeccionar las necesidades de espacio, distribución y ubicación de las diferentes Áreas, atendiendo a objetivos y necesidades de las mismas.
p) Asesorar a los Responsables de las demás Áreas municipales y OOAA en temas relacionados con los edificios que ocupan y atender sus consultas.
q) Mantenimiento integral de los edificios y de las instalaciones municipales.
r) Planificación, gestión y control de la limpieza de interiores.
s) Diseño de los nuevos locales, espacios y/o edificios que el Ayuntamiento de Getxo requiera para el desarrollo de sus tareas.
t) Diseño y control de los parámetros de confort de las estancias municipales
u) Diseñar los criterios de gestión energética de los edificios municipales y gestionar e

Cod. Validacion: GET/DEK/2019/5503 RM3wjvqcg9

Sinatua: Jesus Maria Lakarra Arrastia (Langile eta Antolaketaren Arloko Arduraduna/Responsable del Área de Personal y Organización)
Firmado: Ignacio Uriarte Gorostiaga (Zinegotzi delegatua. Alkatearen 3214/2019 Dekretu bidez eskuordetua/Concejal/a delegado/a. Delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía nº 321...) Data: 2019/11/29 Fecha: 29/11/2019

aurrezteko neurriak kudeatzea eta ezartzea"

Aurrez Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina, Udal Eraikinak Arloari, esleituta zeuden.

implementar las medidas de ahorro energético en los mismos."

Anteriormente asignadas al Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística. Edificios Municipales.

**Bigarrena.-** Aldatu egiten da 7. artikuluaren izenburua, eta aurrerantzean "Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplinaren Arloa" deituko zaio.

**Segundo.-** Se modifica el título del artículo 7, denominándose ahora "Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística".

**Hirugarrena.-** "Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa - Ingurumena" arloari atxiki zaizkio transferitutako funtzioak gauzatzeko behar diren baliabide material guztiak, lehen Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloaren eskuetan zeudenak.

**Tercero.-** Se adscriben al área de "Infraestructura, Obras y Servicios - Medio Ambiente" todos los medios materiales necesarios para la ejecución de las funciones trasferidas, y que anteriormente figuraban en el área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística.

**Laugarrena.-** "Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa – Ingurumena" Arloari atxikitzen zaizkio honako kode hauek dituzten lanpostuak: APAREJADOREA (7883, 97 eta 7882), DELINEATZAILEA (113), GARBIKETAKO ARDURADUNA (255), ADMINISTRARIA (8183) eta ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA (6914).

**Cuarto.-** Se adscriben al área de "Infraestructura, Obras y Servicios - Medio Ambiente" los puestos de trabajo con los códigos siguientes: APAREJADOR/A (7883, 97 y 7882), DELINEANTE (113), ENCARGADA/O DE LIMPIEZA (255), ADMINISTRATIVO/A (8183) y AUXILIAR ADMINISTRATIVO/A (6914).

Era berean, "Obrak eta Zerbitzuak" izeneko brigada osoa atxikitzen da Lanpostuen Zerrendan esleituta dituen lanpostuekin, honako kode hauekin: 211, 400, 246, 249, 243, 242, 240, 260, 399, 258, 226, 225, 253, 250, 252, 284, 291, 289, 286, 287, 285, 409, 288 eta 290 eta "Hilerriko Brigada" 3230, 403, 339, 345, 346, 3229 eta 282 kodeak esleituta dituzten lanpostuekin.

Asimismo se adscribe completa la Brigada denominada "Obras y Servicios" con los puestos que tiene asignados en la Relación de Puestos de Trabajo con códigos: 211, 400, 246, 249, 243, 242, 240, 260, 399, 258, 226, 225, 253, 250, 252, 284, 291, 289, 286, 287, 285, 409, 288 y 290 y la Brigada de Cementerio con los puestos que tienen asignados los códigos: 3230, 403, 339, 345, 346, 3229 y 282.

Horiek guztiak, lehenago, Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloan sartuta zeuden, eta hierarkikoki Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloa – Ingurumena arduradunaren mende geratzen dira.

Todos ellos anteriormente estaban incardinados en el área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, pasando a depender jerárquicamente del Responsable del área de Infraestructura, Obras y Servicios. Medio Ambiente.

**Bosgarrena.-** Dekretu honen berri ematea Idazkaritza Nagusiari, Kontu-hartzailetza Nagusiari, Hirigintza-Plangintza, Kudeaketa eta Diziplina Arloari, Azpiegituren, Obren eta Zerbitzuen Arloari eta Langileria eta Antolaketa Arloari.

**Quinto.-** Notificar el presente decreto a la Secretaría General, Intervención General, al Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística, al Área de Infraestructura, Obras y Servicios - Medio Ambiente y al Área de Personal y Organización.



Cod. Validacion: GET/DEK/2019/5503 RM3wjvqcg9

Getxo
Sinatua: Firmado: Jesus Maria Lakarra Arrastia (Langile eta Antolaketaren Arloko Arduraduna/Responsable del Área de Personal y Organización)
Ignacio Uriarte Gorostiaga (Zinegotzi delegatua. Alkatearen 3214/2019 Dekretu bidez eskuordetua/Concejal/a delegado/a. Delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía nº 321...) Data: 2019/11/29 Fecha: 29/11/2019

Ebazpena hau Alkatearen eskuordetzaren bidez eman da

Esta Resolución se ha adoptado por Delegación de la Alcaldesa

Agiri honek eskuz idatzitako sinadurarik ez izenperik ez duen arren, legezko balioa du. Getxoko Udalaren web-orrialdetik (http://www.getxo.eus/ administrazio elektronikoko bulegoa) agiri honen benetako kopia eskuratu ahal duzu formatu digitalean, ezkerraldean ageri den egiaztapen-kode segurua erabiliz

A pesar de no constar firmas manuscritas, este documento tiene validez legal. En la Página Web Municipal ( http://www.getxo.eus/ Oficina de Administración Electrónica) podrá obtener una copia auténtica de este documento en formato digital, mediante el Código Seguro de Verificación que aparece en el margen izquierdo.

Cod. Validacion: GET/DEK/2019/5503 RM3wjvqcg9

Sinatua: Jesus Maria Lakarra Arrastia (Langile eta Antolaketaren Arloko Arduraduna/Responsable del Área de Personal y Organización)
Firmado: **Ignacio Uriarte Gorostiaga (Zinegotzi delegatua. Alkatearen 3214/2019 Dekretu bidez eskuordetua/Concejal/a delegado/a. Delegación en virtud del Decreto de la Alcaldía nº 321...) Data: 2019/11/29 Fecha: 29/11/2019**